

12. GAIA: Nortasunaren ebaluazioa

12.1. NORTASUN TIPOEN ETA TENPERAMENTUEN EBALUAZIOA

***Gorputzaren elementuak nortasun tipologiarako:** gaur egun oso jende gutxik jarraitzen dio ideia honi. Ez da soilik gorpuzkera aztertzen jokatzeko era ere ebaluatzen da. Txikiak garenean barne-kanpo estimuluei erantzuna emateko eran bat daukagu eta horrek temperamentua islatzen du. Egun, helduetan temperamentua neurtzea gainbeheran dago.

- **Temperamentu/tipologiaren arabera hainbat proposamen.**

***Myers-Briggs Tipoen Indikatzailea (MBTI; Myers, 1962):**

- **4 eskala bipolar (4 funtzio jungiarrak jasoak):** lau eskalak konbinatzen dira eta funtzio nagusia zeinek duenaren arabera hizki bat edo beste ezarriko zaio. Hizkiak eta horien ordena konbinatzen dira. Lehenengoa jartzen dena da nagusiki islatzen den alderdia.
 - **EI (Kanporakoitasuna – Barnerakoitasuna)**
 - **TF (Pentsamendua - Sentimendua)**
 - **SN (Sentsazioa - Intuizioa)**
 - **JP (Epaia - Hautematea)**
- **Eskalen konbinaziotik 16 tipo desberdin.**

***Strelau Temperamentu Inbentarioa (STI; Strelau, 1972):**

- **Nerbio-sistemen (indartsua eta ahula) teoria pavloviarretan oinarritua.**
- **3 eskala:**
 - **Kitzikapenaren indarra (SE); estimulazio handiko egoeretan errendimendu ona.**
 - **Inhibizioaren indarra (SI); akzioa atzeratu, ekidin edo eten egiteko gaitasuna.**
 - **Mugikortasuna (M); estimulazio berriaren aurrean aldaketak egiteko gaitasuna.**
- **134 item dikotomiko.**

***Haur temperamentuak:**

- **3 temperamentu mota hainbat dimentsioen arabera:** hiru kategoria daude haurra txikia denean:
 - **Erreza:** alaiagoa, umore onekoa, lasaia eta protesta gutxi goseagatik edo hotzagatik, eta lasaitzen errazagoa, jateko eta lo egiteko ohitura

erregularra, egoera berrietara edo ohitura aldaketetara ondo moldatu. Bizitza ona ematen dute.

- **Zaila:** oso aktiboa eta geldiezina, erraz distraitu eta biziki haserretu, goseagatik edo hotzagatik lasaitzen zaila. Jate eta lo egiteko patroirregularak, egoera berrietara edo ohitura aldaketetara gaizki moldatu, egoera ezezagun horietan beldurriago agertu. Distraitu eta haserretu egiten dira. Zailagoak dira lasaitzen.
- **Motela:** aktibazio maila baxua, geldiezina ez, egoera berrietara edo ohitura aldaketetara gaizki moldatzeko zailtasuna eta hauek ekidin egonezina sortzeagatik, egoera berrien aurrean negarrak, gosea edo logurak ez du berehalako erreakzioa sortzen.

***ITQ-R (Haurren temperamentuen galde-sorta; Carey eta McDevitt, 1975):**

- 95 item.
- 4-8 urte bitarteko gurasoei aplikagarria.

***PTQ (Gurasoentzako temperamentuen galde-sorta; Thomas eta Chess, 1977):**

- 72 item.
- 3-7 urte bitarteko gurasoei aplikagarria.

***EASI-I /Buss eta Plomin, 1975):**

- 20 item.
- 1-9 urte bitarteko gurasoei aplikagarria.

*Hiru hauetan ideia egin zein tartetan erabil daitezkeen.

12.2. EBALUAZIOA IRIZPIDE ENPIRIKOTIK

***MMPI-2 eta MMPI-2-RF (Minnesotako Nortasun Inbentario Multifasikoa-2 eta berregituratutako forma):** nahiko test hibridoa da, psikopatologia (konnotazio negatiboa) eta nortasunaren erdian kokatuko litzateke eta. Hala, gabezia edo ahuldade psikologikoak ebaluatzen ditu.

- **Hasierako 8 eskala (MMPI):** hipokondria, depresioa, histeria, desbiderazio psikopatikoa, paranoia, psikastenia, eskizofrenia eta hipomania.
- **MMPI-2:** 15 eskala: herstura, beldurrak, obsesioak, depresioa, osasuna, idea arrotzak, haserrea, zinismoa, praktika antisozialak, A motako portaera, autoestima baxua, gizarte ezadostasuna, famili problemak, lanarekiko interferentziak, tratamenduarekiko indikatzaile negatiboak. Nerabeentzako forma.
- **MMPI-2-RF (338 item, 50 eskala, bertsio laburtua).**

***CPI (Kaliforniako Inbentario Psikologikoa; Gough, 1987):** nahiko luzeak da profil oso bat aztertu nahi dugulako.

- 18 eskala:
 - 13 eskala irizpide enpirikotik, 5 irizpide arrazionaletik.
- 480 item (egokitzapen espainiarrean 462 item).

12.3. EBALUAZIOA TEORIA FAKTORIALETIK

*Hauek dira gehien erabiltzen direnak. Faktore analisi bidez ikusten dugu gure nortasuna zenbat zatitan bildu daitekeen. 16PF eta 5 handiak dira gehien erabiltzen direnak.

*Catell-en probak, adinaren arabera:

- 16PF (Catell, 1949): 187 item; A, B, C, D, E eta F
 - 16PF-5 (Catell eta beste, 1993): 185 item
 - ESPQ: 6-8 urte
 - CPQ: 8-12 urte
- Haurrentzat, adinaren arabera

*Eysenck-en probak:

- Maudsley Medical Questionnaire (MMQ, 1952): N soilik
- Maudsley Personality Inventory (MPI, 1959): N eta E
- Eysenck Personality Inventory (EPI, 1964): N eta E
- Eysenck Personality Questionnaire (EPQ-J (haur/gazteentzat) eta EPQ-A): 8-15 eta helduak; N, E eta P
- Eysenck Personality Questionnaire-Revised (EPQ-R (helduentzat)): N, E eta P

*Bost Handiak ("Big Five"): N, E, O, A, C: gaur egun gehien erabiltzen den testa da. Nortasuna bost faktoreen arabera banatzen du. Kasu batzuetan, hauetaz gain beste aldagai batzuk ebaluatu nahi baditugu bertsio egokitua erabili dezakegu. Soilik nortasuna aztertu nahi badugu: NEO-PI-R.

- NEO-PI-R eta NEO-FFI (Costa eta McCrae)
 - 240 item: 5 eskala eta 6 fazeta
 - Euskarara egokitua
- NEO-FFI (Costa eta McCrae)
 - 60 item: 5 eskala eta 6 fazeta
 - Euskarara egokitua

12.4. NORBANAKOTASUNAREN EBALUAZIOA

*Ez dago ezberdintasunik nortasuna eta gainerako aldagaien artean. Nortasuna dena da. Planteamendu ezberdinak egon daitezke baina beti dago zerbait komuna: dena dela nortasuna. Batzuek diote ebaluaketa honetan ez dagoela metodologiarik, beste batzuek ordea dena dela metodologia. Beraz, beti gaude ebaluatzen, ez da momentu zehatz batean hasten. Hala ere, ebaluazioa elementu isolatuetan zentratuz (kontraesankorra dena) egin daiteke. Autokontzeptuak zentratzen laguntzen du, ikusten pertsonak bere buruarekiko nolako ebaluazioa egiten duen.

***Niaren ebaluazioa**

- **Freud-en nia**
- **Nia psikologia humanista (self)**

***Haur autokontzeptuaren ebaluazioa**

- **Autokontzeptua-A forma (Musitu eta beste, 1991): akademikoa, soziala, emozionala eta familiarra); baita euskarazko forma**
- **A-1 eta A-2 autokontzeptu eskalak (Martorell eta Silva)**
- **SEI autoestima inbentarioa (Coopersmith, 1967)**
- **Haurrentzako autokontzeptu eskala (CSCS; Piers ta Harris, 1969)**

***Helduen autoestima/autokontzeptuaren ebaluazioa:**

- **Norbera eta Besteen Onarpen Eskala (ASOS; Berger, 1952)**
- **Autoestima Inbentario Kanadiarra (CSEI; Batte, 1976)**
- **Lavogie Autoestima Eskala (M-EAE, 1958)**
- **Tennessee Autokontzeptu Eskala (CSCS; Fitts, 1964)**
- **Rosenberg Autoestima Eskala (RSES, 1965): bost item zentzu positiboan eta beste bost zentzu negatiboan.**

➤ **10 item (5 eta 5); Likert-7**

12.5. EREDU KOGNITIBOEN EBALUAZIOA

* Ereduek dependiente vs. independente → FO (formas/figuras ocultas).

***Asch eta Witkins (1948):**

- **Gela Giratoriarreko Testa (RRT)**
- **Gorputzeko Egokitzapeneko Testa (BAT)**
- **Markoa eta Makiltxoaren Testa (RFT, 1962)**
- **Figura Enmaskaratuen Testa (EFT, 1950); GEFT (taldeka); CEFT (haurrak 5-10)**

12.6. BIZITZA-EREDUEN EBALUAZIOA

*Ebaluazio hauen oinarrian ondorengo ideia dago: bizitza eredu batzuk beste batzuk baino osasungarriagoak dira. Modu horretan, bizitza estilo jakin batzuk dituzten pertsonak

gaixotasunak izateko probabilitate gehiago dute. Beraz, bizitza patroiak markatuko du ondorengo eritasun fisikoa.

***Alderdi pertsonalak: A motako patroia (PCTA):** nortasun tipo bezala oso zaila da aldatzen, ez bada terapia sakon bat erabiltzen Gehienbat Jenkins-en eskala eta SI erabiltzen dira.

- **Elkarrizketa Egituratua (SI; Rosenman eta beste, 1975)**
- **Jenkins Aktibitate Eskala (JAS; Jenkins eta beste, 1979)**
 - **52 item; Inpatzientzia, Esfortzua/lehiakortasuna eta Laneko inplikazioa**
 - **JASS: ikasleentzako bertsioa**
- **Framingham A Mota Eskala (FTAB, 1980)**
 - **10 item**
- **Bortner Eskala (BRS, 1982)**
 - **14 item, SI-tik eratorria**

***Alderdi pertsonalak: Grossarth-Maticek eta Eysenck**

*A eta B tipoez gain C eta D ere antzeman ziren.

- **Eysenck eta C tipoa: emozioen adierazpena eta psikosomatika:** osasunarekin eta emozioen ezagutzarekin loturik dago. Minbiziekin, erreakzio fisiologikoekin (asma), aparatu digestiboaren (ultzerak) ... lotzen da.
- **Pertsonarteko Erreakzioen Inbentarioa (SIRI; Grossarth-Maticek eta Eysenck, 1990)**
 - **70 item dikotomiko; 4 mota: I tipoa, minbizia; II tipoa, gaixotasun kardiakoak; III eta IV tipoa**
- **Pertsonarteko Estiloen Inbentarioa (ISI, Lorr, 1986):** laneko testuinguruei lotua.
 - **300 item; 14 urtetik aurrera**
 - **Lanean eta aisialdian erlazionatzeko moduak**
 - **Pertsonarteko arazoak, Sozializazioa, Autonomia, Autokontrola eta Egonkortasuna:** hauek dira ebaluatzen diren dimentsioak (ez dira ikasi behar).

*Ez da nortasun profil bat, nahiko egonkorra den portaera patroia baizik.

***Inguruko faktoreak:**

- **Bizitzako gertaera estresagarriak:** gure izaera kanpoko faktoreei aurre egiteko moduaren araberakoa izango da. Beste hitzetan, bizitzan gertatutakoaren arabera modu batean edo bestean egiten diegu aurre faktore ezberdinei. Estresagarrienak diren elementuen artean bizileku eta lan aldaketak ditugu. Ebaluazio hauen bidez, gertaera horiek zenbateraino estresatzen edo eragiten diguten ikusten dugu.
 - **Eguneko Gertaeren Eskala (SRE)**
 - **Bizitza Gertaeren Inbentarioa eta Aurre-egitea (LECI)**
 - **Maslach Burnout Inbentario Eskuliburua (MBI):** oso espezifiko da. "Burn out" sindromea honen bidez ebaluatzen da. Hiru dimentsio ditu.

- **Gizarte laguntza**
 - **Arizonako Gizarte Laguntza Elkarrizketa Eskala (ASSIS):** sentimenduak, laguntza materiala, aholkua, atzera-elikatze positiboa, laguntza fisikoa, eta parte-hartze soziala

*Aurre-egitearen (*coping* aurre-egitea, afrontamiento) ebaluazioa:

- **Aurre-egite Moduen Zerrenda (WCC; Folkman)**
- **Aurre-egite Estimazioa (COPE; Carver):** gehienetan COPE (aurre egitea ingelesez) erabiltzen da. Pertsona batzuk aktiboagoak dira, beste batzuk ekidipenera jotzen dute, besteek gizarte laguntza erabiltzen dute ...
 - **14 aurre-egite modu: aurre-egite aktiboa, planifikazioa, interferentzia egiten duten aktibitateak kentzea, itxarotea, laguntza instrumentalaren bilaketa, laguntza emozionalaren bilaketa, berrinterpretazio positiboa, onarpena, erlijioa, ukapena, emozioei kasurik ez egitea, jokabide urruntzea, urruntze mentala, alkohola/drogetan arintzea bilatzea.** 14 estilo ezberdin aztertzen ditu. Batzuek estilo batzuk gehiago erabiliko dituzte.

R. B. Cattell, A.K.S. Cattell eta H.E.P. Cattell (1993)

16PF-5 Nortasuneko Galdera-Sorta Faktoriala tresna da, pertsonaren nortasunaren lehen mailako 16 ezaugarri, a 5 dimentsio global (Hasieran 4 multzo atara zitzaizkion baina Big Five-n eragina jaso, faktore analisiak ez duelako modu zehatz baten emaitza ematen) eta 3 erantzun-estilo ebaluatzea helburua duen tresna da.

Administrazioa: Aplikagarria 16 urtetik gorakoentzat, modu ulerkorrean irakurtzeko gai diren bitartean.

16PF-5 testa banaka zein taldeka aplika daiteke, gutxi gorabehera 45 minututan burutu daitekeena (luzea). Testak 185 item ditu, 3 aukeren artean hautatuz erantzuten dela. Elementu guztietan tarteko aukera galdera ikurra da, arrazonamendua (B) eskalan izan ezik. Faktore bakoitzak 10 eta 15 elementu artean ditu.

Aplikazio alorrak: Psikologia Klinikoa, Hezkuntzaren Psikologia(gutxi), Psikologia Juridikoa, Lanaren eta erakundeetako Psikologia, Kirolaren Psikologia(gutxi), Ikerkuntza-helburuetarako Psikologia.

Administrazioa: Ordenagailuz egitea eska liteke. Ebaluatuak galderen koaderniloa eta erantzun-orri izan behar ditu. Koaderniloan instrukzioak agertzen dira, profesionalak esplikatzea eta honako argibideak ematea komeni den arren:

- Erantzunak horretarako dagoen orrian adierazi
- Ez dago erantzun zuzenik ezta okerririk ere
- Galdera bakoitzari ez zaio buelta gehiegirik eman behar
- B (?) erantzuna ekiditea gomendatzen da
- Galdera guztiak erantzutea saiatu behar da - Erantzun ahalik eta zintzoen

Zuzenketa: Behin administrazioa burututa, erantzunak eta subjektuaren datuak TEAko programa informatikoan sartzen dira. Programaren bitartez, puntuazio zuzenak, eta lehen eta bigarren mailako faktoreen dekatipoak eta erantzun-estiloena lortzen dira, hala nola dagokion profila.

16 dimentsioetan muturreko ezaugtan nabarmentzeak ez du esan nahi patologia dagoenik, izateko era da. Salbuespena arrazonamendua da, muturreko balioek adimenakin arazo bat daola esan liteke.

Lehen mailako ezaugarriak

- Atsegingarritasuna (A) Irekiak ala erreserbatuak izateko pertsonaren joera.
- Arrazonamendua (B) Problema ebazteko gaitasuna. Ez da nortasuneko ezaugarri bat.
- Egonkortasuna (C) Arazo eta zaitasunei aurre egiteko pertsonak duten oreka.
- Dominantzia (E) Beste batzueganako norberaren borondatea ezartzeko joera.
- Animazioa (F) Pertsonaren naturaltasun eta gizartekoitasun gradua vs. seriotasuna eta inhibizioa
- Arauei arreta (G) Pertsonak nola barneratzen dituzten arauak eta portaerak kontrolatzeko saiateren diren.
- Ausardia (H) Ausardi, gizarte-erlazioetan segurtasun eta izaera ekintzaile gradua vs. ahalketasuna eta gizarte-herabetasuna.
- Sentikortasuna (I) Enpatia, sentimentalismoa eta estetikoagatikoa lehentasuna ebaluatzen du.
- Zaindari-jarrera (L) Mesfidantza eta eszeptizismo gradua ebaluatzen da.
- Abstrakzioa (M) Pertsona buru-prozesuei eta ideiei ala alderdi pragmatikoei eta errealisteki dagoen orientatuta ebaluatzen du.
- Pribatutasuna (N) Naturaltasuna eta irekidurari joera vs. emozioen pribatutasunari joera.
- Aprentisioa (O) Segurtasuna eta lasaitasuna vs. inseguritatea, kezka eta aprentisioa.
- Aldaketarako irekidura (Q1) Pertsona tradizionalak eta familiarra denari atxikituak eta mentalitate irekia, analitikoa eta berritzailea dutenak ezberdintzen ditu.
- Autosufizientzia (Q2) Pertsonen independentzia erabaki-hartzeetan edo besteekiko hurbiltasunean.
- Perfekzionismoa (Q3) Malgutasuna eta tolerantzia desordenarekiko vs. antolaketa eta diziplina.
- Tentsioa (Q4) Tentsioa, ezinegona eta artegatasuna.

Dimentsio globalak lehen mailako arteko interrelakzioa laburbiltzen dute eta nortasuneko ikuspegi zabalagoa baimentzen dute.

Nortasunaren 5 dimentsio globalak hauexek dira: Kanporakoitasuna (Ext): A+ F+ H+ N- Q2- Herstura (Ans): C- L+ O+ Q4+ Gogortasuna (Dur): A- I- M- Q1- Independentzia (Ind): E+ H+ L+ Q1 Autokontrola (AuC): F- G+ M- Q3+

Erantzun-estiloak ebaluatzeko 3 neurri ere baditu, erantzunetan soslaiak kontrolatzeko helburuarekin: Irudiaren manipulazioa (MI) Infrekuentzia (IN) Akiestzentzia (AQ) Inkonzienteki iten da, sozialki onartua den irudi horreta gerturau nahi de.

Irudiaren manipulazioa: Eskala honek gizarte-desiragarritasuna ebaluatzen du. Indize altuek zera adierazten dute: pertsonak bere buruaz irudi ona eman nahi duela. Indize baxuak beste pertsonen aurrean irudi negatiboa eman nahi izatearen adierazleak dira.

Infrekuentzia: Eskala hau galdera-sortari erantzuna emateko azaltzen den aurkako joera detektatzeko egina da; subjektuak B aukera (ezbai) aukeratzen du nahita eta modu tinkoan,

argibideetan aukera hau ez erabiltzeko azpimarratzen den arren. Hala ere, erantzun honek irakurketako arazoak islatu ditzake, galdera-sorta baliogabetzen duena. Eskala honetan puntuazio altuak (4ko edo goragoko puntuazio zuzena) ebaluatuak bere buruz informazioa eman nahi ez duela adieraz dezake.

Akiestzentzia: Ebaluatuak egia-gezurra motako galderei emandako erantzunak aztertzen dira. Ebaluatuak egia erantzuteko estiloak identifikatzea du helburua, galderaren formulazioa eta edukia edozein izanik. Puntuazioa altua da 65eko edo goragoko puntuazio zuzena lortzen denean.

Faktore bakoitzeko puntuazio zuzenak dekatipo bihurtzen dira dagokion baremoaren arabera. PZ-ak 10eko eskala baten dekatipo bihurtzen dira.

Dekatipoa puntuazio tipikoak dira, non batazbestekoa 5,5eko dekatipotan kokatzen den eta desbiderazio estandarra 2 dekatipotakoa den. Normal kontsideratzen den tartea 3,5 eta 7,5 puntuazioen artean da.

Dekatipoak: 1 eta 10: muturreko balioak /2-3 eta 8-9: desbiderazio handia/ 4 eta 7: desbiderazio txikia/ 5 eta 6: erdiko balioak

Lehen mailako eskalen eta dimentsio globalen deskribapenetan, “mutur baxua” eta “mutur altua” 1-3 eta 8-10 dekatipoak dagokie.

- 3 dekatipoari 11. pertzentila dagokio, eta 8 dekatipoari 89.a
- 2 dekatipoari 4. pertzentila dagokio, eta 9 dekatipoari 96.a
- 1 dekatipoari 1. pertzentila dagokio, eta 10 dekatipoari 99.a

INTERPRETAZIOA

1. Erantzun-estiloak analizatu (MI, IN eta AQ eskalak) profila distortsionatu dezaketen soslaiak erantzunetan detektatu ahal izateko.

2. Dimentsio globalak interpretatu. Lehenago beharrezkoa da aztertzea: a) Dimentsio hauen puntak (muturreko dekatipoak: 1-3 eta 8-10). Hirutik gorako profila izatea arraroa da. b) Kongruentzia: identifikatu ea dimentsio globaletarako kontutan hartzen diren lehen mailako eskalak kongruentziako zentzuan doazen.

3. Lehen mailako dimentsioen interpretazioa: a) Lehendabizi puntak kopurua aztertu (normala 3 eta 7 bitartean) b) Ondoren pikoak interpretatu eskala bakoitzaren barruan duten esanguraren arabera.

NEO-PI-R NORTASUNAREN NEO INBENTARIO BERRIKUSIA

Autoreak: P.T. Costa eta R.R. McCrae (euskarazko egokitzapena: N. Balluerka, A. Gorostiaga, I. Alonso-Arbiol eta M. Haranburu)

Helburua: Nortasuneko faktore nagusien ebaluazioa Bost Handiren ereduaren arabera, hala nola dimentsio bakoitzaren azpian dauden fazetena. Eredu honen arabera nortasun 5 faktorek edo dimentsio nagusik osatzen dute, joera egonkorak eta erantzun trinkoak sortzen dituztenak: - Neurotizismoa (N) - Kanporakoitasuna (E) - Atsegingarritasuna (A) - Irekitasuna (O) - Ardura (C)

Deskribapena: 240 itenez osatua, Likert-5 eskalaren arabera erantzuteko ('Gutziz ezados'-etik 'Gutziz ados'-era).

Aplikazioa: 17 urtetik gora. Banaka zein taldeka aplikatu daiteke; gutxi gorabehera 40 minutu irauten du.

• **Bost faktore horietako bakoitzak 6 azpieskala edo fazetak dago osatuta; beraz, nortasunaren 30 eskalak baloratzen dira.**

– Neurotizismoa (N): • Fazetak: N1 Herstura. N2 Etsaitasuna. N3 Depresioa. N4 Herstura soziala. N5 Inpultsibitatea. N6 Zaurgarritasuna/Minberatasuna.

– Estrabertsioa edo Kanporakoitasuna (E): • Fazetak: E1 Adeitasuna. E2 Gregarismoa. E3 Asertibotasuna. E4 Jarduera. E5 Emozioen bilaketa. E6 Emozio positiboak.

– Esperientziari Irekitasuna (O): • Fazetak: O1 Fantasia. O2 Estetika. O3 Sentimenduak. O4 Ekintzak. O5 Ideiak. O6 Baloreak.

– Atsegingarritasuna (A): • Fazetak: A1 Konfiantza. A2 Tolesgabetasuna. A3 Altruismoa. A4 Jarrera bakegilea. A5 Apaltasuna. A6 Besteekiko sentiberatasuna.

– Kontzientzia edo Ardura (C): • Fazetak: C1 Gaitasuna. C2 Ordena. C3 Eginkizunaren zentzua. C4 Lorpen premia. C5 Autodiziplina. C6 Deliberazioa.

• **Baliotasun elementuak:**

– Akiestzentzia • Ea ebaluatuak erantzun duen modu zehatzean. Akiestzentzia gradua estimatzeko, Ados eta Guztiz ados erantzun-kopuru osoa zenbatu behar da. Hau 150 edo gehiagokoa baldin bada, NEO-PI-R kontu handiz interpretatu behar da akiestzentzia oso altuak emaitzak soslaitu ditzakeelako.

– Desadostasuna (Ukapenak) • Ados eta Guztiz ados erantzun urritasunak ematen du, eta kontutan hartuko da ebaluatuak 50 edo elementu gutxiago erantzun badu aukera horiek hautatuz.

– Zoriz emandako erantzuna • Ebaluatu ez kolaboratzaileek eman ditzakete erantzunak arretarik gabe edo zoriz; motibazio gutxi izan ohi dute eta zoriz erantzuten dute azkar bukatzeagatik. Detektatzeko modu bat da erantzun-aukera bat elementu jarraitu askotan hautatua izan dela behatzea. Honako elementu eta aukerak modu jarraituan hautatua izana kasu hauetan: Guztiz ezados aukeran 6 baino gehiago, Ezados aukeran 9 baino gehiago, Neutro aukeran 10 baino gehiago, Ados aukeran 14 baino gehiago eta Guztiz ezados aukeran 9 baino gehiago.

Emaitzen profilaren interpretazioa Puntuazio zuzenak T puntuazioak bihurtu 50eko batezbestekoarekin eta 10eko desbiderazio tipikoarekin

<i>T puntuazioak</i>	<i>Kategoria</i>
> 65	Oso altua
56-65	Altua
46-55	Ertaina
36-45	Baxua
< 36	Oso baxua

1. Baliotasun indizeetatik hasi

2. Nortasunaren deskribapen globala: emaitzak 5 faktoreetan. Deskribapen laburtua.

3. Fazeten interpretazio faktoreka (N, E, O, A eta C). Fazeta hauetako puntuazioen azterketak nortasuneko ezaugarrien irudi zehatzagoa eskaintzen du.

NEO-FFI

• Bertsio laburtua: NEO-FFI (60 item).

• Helburua: nortasuneko 5 faktoreen neurri azkar eta orokorra.

- Administrazioa: Banaka edo taldeka
- Hizkuntza: gazteleraz edo euskaraz
- Adina: nerabeak (17 urtetik gorakoak) eta helduak
- Aplikaziorako denbora: 15 minutu
- Materiala: Autozuzenketa duen alea, barne dituela: – galderak, – erantzun-orria, – eskuko zuzenketarako plantila, – Baremoak, eta – profil grafikoa.

Inbentario osatu gabea: • 10 elementu edo gehiagoren bete gabe badira, testa baliogabetu egiten da eta ez litzateke interpretatu beharko. 9 hutsegite edo gutxiago egonez gero, Neutro aukera hautatu izan balitz bezala puntuatu behar da eta 2 puntu eman bakoitzeko. • 4 erantzun baino gehiago bete gabe duen edozein faktore kontu handiz interpretatu behar da.

Balioetasunaren konprobazioak: • Inbentarioaren bukaeran 3 elementu daude jakiteko ea galdera guztiei erantzuna eman zaien, eta behar den lekuan erantzunak eman diren eta ea erantzunak zintzoki eman diren. Ebaluatuak erantzuten badu ez dituela modu zuzenean erantzun edo zintzoki ez duela erantzun, inbentarioa ez litzateke zuzendu behar.

Faktoreen puntuaziorako kalkulua: • P.Z. = Faktore bakoitzeko 12 elementuen puntuazioen batura. Bilatu baremoan puntuazio zuzenei dagozkien puntuazio tipikoak. Profil grafikoa egin.